



Ayuntamiento de OYÓN-OION  
OYÓN-OIONgo Udala

### Bandoa

Gaia: debekatuta dago haur-parkeetako zabuak, txirristak, haur-jolasak eta antzeko elementuak erabiltzea.

Osasuneko sailburuaren 2020ko abuztuaren 19ko Aginduak (2020ko abuztuaren 19ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, 162. zk.) aire zabaleko erabilera publikoko parke eta kirol-eremuetan aplikatu beharreko prebentzio-neurriak ezartzen ditu, besteak beste (3.25 atala).

Hau dio, zehazki, agindu horrek: “Haur-parkeak, kirol-eremuak, skate pistak edo aire zabaleko erabilera publikoko antzeko espazioak jendearentzat irekita egon ahal izango dira, baldin eta horietan gehieneko edukiera errespetatzen bada: barrutiaren azaleraren espazio konputagarriko 4 metro koadro bakoitzeko pertsona bat”.

Udalei dagokie espazioa antolatzea, baita garbitasun- eta higiene-baldintzak bermatzea ere. Udal honek uste du ezin dela ezarritako gehieneko edukiera errespetatu.

Hori horrela, **erabaki dut haur-parkeetako zabuak, txirristak, haur-jolasak eta antzeko elementuak erabiltzeko debekua ezartzea, eta elementu horiek guztiak zigilatzea.**

Espero dut herritarrek ulertzea eta erantzukizunez jokatzeko, eta behar bezala betetzea egungo egoerak bultzatuta hartu behar izan den neurri hau. **Debekua amaitzen denean, bando bidez jakinaraziko da.**

Oyón-Oionen, 2020ko abuztuaren 21ean.  
Alkatea: Eduardo Terroba Cabezón

